

XEDAPEN OROKORRAK

OSASUN SAILA

5132

AGINDUA, 2023ko urriaren 24koa, Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez aldatzen baita Euskal Autonomia Erkidegoan hondakin sanitarioak kudeatzeari buruzko martxoaren 3ko 21/2015 Dekretuaren I. eranskina: «Gaixotasun infekziosoren bat duten pazienteekin kontaktuan egoteagatik sortutako hondakin infekziosoen zerrenda (II A Multzoa)».

Euskal Autonomia Erkidegoan hondakin sanitarioak kudeatzeari buruzko martxoaren 3ko 21/2015 Dekretuaren bidez hondakin horien ekoizpena eta kudeaketa arautzen dira, osasun publiko eta ingurumena babesteko. Dekretuaren I. eranskinak gaixotasun infekziosoren bat duten pazienteekin kontaktuan egoteagatik sortutako hondakin infekziosoen zerrenda (II A Multzoa) jasotzen du.

Osasun eta Trantsizio Ekologikorako Ministerioek agindu hau eman zuten: SND/271/2020 Agindua, 2020ko martxoaren 19koa, zeinaren bidez hondakinak kudeatzeari buruzko jarraibideak ezartzen baitira COVID-19ak eragindako osasun-krisialdiak irauten duen bitartean. Agindu horretan haxe zehazten zen:

«5. Honela kudeatuko dira COVID-19arekin kontaktuan egondako ospitaleetako, anbulantzie-tako, osasun zentroetako, laborategietako edo antzeko establezimenduetako hondakinak, eta instalazioak desinfektatuzetik sortutakoak:

COVID-19arekin kontaktuan egondako hondakinak, hala nola eskularruak, maskarak, mantalak eta abar, hondakin infekziosotzat hartuko dira, eta halaxe kudeatuko dira, hondakin sanitarioei buruzko araudi autonomikoan haiei buruz xedatutakoaren arabera.»

SND/271/2020 Agindua alarma-egoerari lotuta dago, eta ezin da une honetan aplikatu, indargabetu egin zelako COVID-19aren pandemiari lotutako alarma-egoera amaitu zenean.

Bestetik, 2020ko uztailaren 7an 646/2020 Errege Dekretua argitaratu zen, zeinak hondakinak zabortegietan utziz ezabatzeko jarduera arautzen baitu; errege dekretu horrek indarrean jarraitzen du. Bigarren xedapen gehigarrian, COVID-19arekin lotutako hondakinen kudeaketa jasotzen du errege dekretu horrek:

«Bigarren xedapen gehigarria. COVID-19arekin lotutako hondakinen kudeaketa.

2. COVID-19arekin kontaktuan egondako ospitaleetako, anbulantzietako, osasun-zentroetako, laborategietako edo antzeko establezimenduetako hondakin sanitarioak eta instalazioak desinfektatuzetik sortutakoak hondakin infekziosotzat hartuko dira, eta halaxe kudeatuko, hondakin sanitarioei buruzko araudi autonomikoan haien zat xedatutakoaren arabera. Autonomia-erkidegoetako hondakinen arloko agintari eskudunek hondakinak biltegitratzeko nabeak edo lurrak baimendu ahal izango dituzte. Horretarako, agintari eskudunek ezartzen dituzten gutxienekoak bete beharko dira edo hondakin horiek errausketa-instalazio baimenduetara bideratu.»

646/2020 Errege Dekretuan xedatutakoari jarraituz, COVID-19arekin kontaktuan egondako ospitaleetako, anbulantzietako, osasun-zentroetako, laborategietako edo antzeko establezimenduetako hondakin sanitarioak eta instalazioak desinfektatzen sortutakoak hondakin infekziosotzat hartu ziren baita EAEn ere, eta halaxe kudeatzen hasi.

Gaur egungo egoeran, Osasun Ministerioko Osasun Publikoko Zuzendaritza Nagusiak 2022ko irailean interpretazio-ohar bat argitaratu zuen uztailearen 7ko 646/2020 Errege Dekretuaren bigarren xedapen gehigarriaren 2. apartatuari buruz –COVID-19arekin lotutako hondakinen kudeaketa– (646/2020 Errege Dekretua, uztailearen 7koa, Hondakinak zabortegetan utziz ezabatzeko jarduera arautzen duena), eta erabaki zuen HP9 kategoriaren definizioarekin bat etorri interpretatu beharko litzatekeela uztailearen 7ko 646/2020 Errege Dekretuaren bigarren xedapen gehigarriaren 2. apartatuan jasotako «COVID-19arekin kontaktuan dauden hondakin sanitarioak» erreferentzia, kasu honetan:

«Hondakinak arnasa jariakinekin kutsatuta daudela eta horietatik aireko transmisioa izateko aukera dagoela jakiten denean edo horretarako arrazoiak daudenean».

Horrek esan nahi du hondakin infekzioso gisa kudeatu beharko liratekeela soilik ospitaleetako, anbulantzietako, osasun-zentroetako, laborategietako edo antzeko establezimenduetako hondakinak, bai eta instalazioak desinfektatzen eratorritakoak ere, hondakinak arnasa jariakinez kutsatu direla eta horietatik aireko transmisioa egon daitekeela jakiten bada edo horretarako arrazoi sendoak badaude. Horretarako, eta hondakin horiek behar bezala kudeatzeko, 21/2015 Dekretuaren I. eranskina aldatu beharra dago, eta eranskin horretan COVID-19a gaixotasun infekzioso gisa sartu, eta hondakin gisa jo beharra «arnasa jariakinez kutsatutako hondakin oro eta hondakin horietatik aire-transmisorako aukera duten oro».

Hori guztia kontuan hartuta, Euskal Autonomia Erkidegoan hondakin sanitarioak kudeatzeari buruzko martxoaren 3ko 21/2015 Dekretuaren xedapen gehigarrian ezarritako gaikuntzaren araberak, hauxe adierazten da: «dekretu honen I. eranskinean jasotako gaixotasunen zerrenda Osasun sailburuaren agindu bidez alda daiteke, egoera epidemiologikoak hala eskatzen duenean».

XEDATZEN DUT:

Aldatzea Euskal Autonomia Erkidegoan hondakin sanitarioak kudeatzeari buruzko martxoaren 3ko 21/2015 Dekretuaren I. eranskina. Honela geratzen da idatzita:

2023ko azaroaren 15a, asteazkena

MARTXOAREN 3KO 21/2015 DEKRETUAREN I. ERANSKINA

GAIXOTASUN INFEKZIOSOREN BAT DUTEN PAZIENTEEN KONTAKTUAN EGOTEAGATIK SORTUTAKO HONDAKIN INFEKZIOSOEN ZERRENDA (II A MULTZOA)

GAIXOTASUNA		HONDAKINA
1.– Krimea-Kongoko sukar hemorragikoa		Kontaktuan egondako hondakin guztiak
2.– Lassa sukarra		Kontaktuan egondako hondakin guztiak
3.– Marburg birusaren gaixotasuna		Kontaktuan egondako hondakin guztiak
4.– Ebola		Kontaktuan egondako hondakin guztiak
5.– Sukar hemorragiko argentinarra (Junina)		Kontaktuan egondako hondakin guztiak
6.– Sukar hemorragiko boliviarra (Machupoa)		Kontaktuan egondako hondakin guztiak
7.– Artropodo bektoreek transmititutako konplexu entzefalitiko (arbobirusa): Absettarow, Hanzalova, Hypr, Kumlinge, Kiasanur Forest Disease, Omskeko sukar hemorragikoa, Russian spring-summer encephalitis		Kontaktuan egondako hondakin guztiak
8.– Herpes birus simiae (Monkey B birusa)		Kontaktuan egondako hondakin guztiak
9.– Amorrua		Listua, arnasa jariakinak
10.– Izurria	Bubonikoa:	Jariakin zornetsuak
	Pneumonikoa:	Arnasa jariakinak
11.– Lupua (Bacillus anthracis)	Larruazaleko antraxa:	Larruazal-jariakinak
	Inhalazioagatiko antraxa:	Arnasa jariakinak
12.– Difteria		Arnasa jariakinak Infektatutako zaurietako jariakinak
13.– Turalemia	Biriketakoa:	Arnasa jariakinak
	Beste aurkezpen-mota batzuk:	Odola, eta larruazaleko lesioetako, gongoiletako eta konjuntiba-zakuko jariakinak
14.– Baztanga (desagerrarazia)		Kontaktuan egondako hondakin guztiak
15.– Poliomielitisa		Gorozkiak, arnasa jariakinak
16.– Kolera		Gorozkiak eta oka
17.– Tuberkulosi aktiboa		Arnasa jariakinak
18.– Q sukarra		Arnasa jariakinak eta odola
19.– B hepatitis		Dialisi-iragazkiak eta hodixkak
20.– C hepatitis		Dialisi-iragazkiak eta hodixkak
21.– Giza immunoeskasiaren birusa (GIB)		Dialisi-iragazkiak eta hodixkak
22.– Bruzelosia		Jariakin zornetsuak
23.– Creutzfeldt-Jakob edo prioiek eragindako beste batzuk		Infekzio-gaitasuna dutela egiaztatutako ehunak
24.– COVID-19a		Arnasa jariakinekin kutsatutako hondakinak, horietatik aire transmisiorako aukera dutenak

Eranskin honetako gaixotasun zoonotikoei dagokienez, zabaldu egin beharko da animalien hondakin sanitario infekzioen zerrenda, infekzioa eragin dezakeen hondakin oro har dadin kontuan.

AZKEN XEDAPENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko urriaren 24a.

Osasuneko sailburua,
MIREN GOTZONE SAGARDUI GOIKOETXEA.